

*Oarak:*

1. Broussain'en bigafen idazki goraxeago aipatu zaitzuna gutunaren II'en Atalean gordea daukazu.

2. Agife'k, euskaltzaingoa ukatzeaz, utzi zuan Euskaltzaindia'ren diruzaiñgoa, abots batez, Altube euskaltzaiñ gaiaren lepora emana izan zan.

3. Euskaltzaindia'k, erabaki zuan bezela, Campion eta Broussain'en euskera bateratzeko gaiaz idatzitako gutuntxoa argitaratu zuan. (1).

---

AMAZAZPI TA AMAZORTZI GAREN BATZARALDEAK

(Donostian, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, orilaren 24 ta 25'ean)

ALKIETAN: Azkue, Eleizalde, Eguskitza, Intzagarai, Lande-  
reche, Olabide ta Urquijo.

I.—ORILAREN 24'eko BATZARA (XVII'na)

1. Gure Buruak, Broussain lankide maitearen eriotza ustegabekoa aipatu zigun, ta itz saminez lagun maite ofen gogo-biotzak goretsi zizkigun.

2. Agerkarien bidez, Agife ta Broussain'ek, lenak bere uko egiteaz, bestek'bere eriotzaz Euskaltzaindia'n utzi zuten utsunea ezagutaraztea, erabaki zan.

3. Campion eta Broussain'en «euskera bateratzeaz»-ko gutuntxoa eskuetaratu zitzaigun, ta Eusko Ikaskuntzaren bidez uririk ta nasaiki zabalaraztea erabaki zan.

---

(1) Ona aren izena: *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain á la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera*. Bilbao. Imprenta del Ave Maria. 1920. In-32 eineko 20 ofi.

4. Euskaltzain batzuk, egileak bere idazki ori, noizbait Bilbon, leku zabal ta idiki batean, irakurtzea egokitzat erakutsi zuten, edozein entzulek bere aburua agertzea zilegi zualarik.

5. Esan izan zan Gipuzkoa'ko Aldundia'ri, ark len bere diruz bifargitaratu zuan Aita Mendiburu'ren «Jesusen Biotzaren Devocioa» deritzayon gutunaren zenbaki saldugabeakoak, Euskaltzaindia'rentzat eskatu bea' genizkiola, ta alaxe egin zan.

6. Gero erabakitxo batzuk artu ziran: 1'na, Intzagarai'ri Euskal olefki edo neufitiz oberenak mordo batean bil zitzala agintzea; 2'na, idazlari ordekoa gure idazkizaiñari laguntza emateko batzarfetara agertzea; 3'na, be'riz euskaltzaiñ deduzko uruti daudenai bere euskaltzaingoko be'fia jakiñaraztea; 4'na, urte amaya baño lenago, Euskaltzaindia'ren lanak gutun batean argitaratzea.

7. Azkenik, Araba ta Bizkai'ko Aldundia'k Euskaltzaindia'ren erabakiak onesten zituztela zekaften eskutitzak irakufi ziran.

## II.—ORILAREN 25'eko BATZARA (XVIII'gna)

1. Aita Zabala'ren ipuiak argitaratzea onetsi zan.

2. Carmelo Echegarai'ri, Domingo Agife-ren olefkietarako apaindu bea' zuan itzaufea gertutzen leia zedin eskatzea erabaki zan.

3. Aita Anton, Efoman dagon Jesus'en Lagundi'ko euskaltzaleari idaztea itzartu zan, zeintsu diran Italian argitaratuko elizti-ikefpenezko gutun onenak (obras de lingüística) jakiteko.

4. Diruzaiñari eman geneikion, Bizkai'ko Aldundia'ri, afk itzeman zigun diruaren erdia eskatzeko eskua.

5. Euskal atzizti (sufijos vascos) gaiaz derasaten liburuak Euskaltzaindia'k eros litzan agindu zan.

6. Euskal-izkidetegi bat (Diccionario de rimas vascas) antolatzeaz aburu batzuk erabili ziran.

7. Champion'eri eskuaftean dauzkan lanak «Euskera'ren iztegi kondairazkoa» ta «Antziñako toki-elestia» (Diccionario histórico de la Lengua Vasca y Toponimia antigua) zein eineratuak diran galdetzea erabaki zan.

8. Ayestaran'en eskutidaztiak ikeftzeko asmoz, Euskaltzaindia'k bere eskuetan jararazi zituan.

9. «Dictionnaire des idées suggérées par les mots» deritzaion liburu prantzesa eskuetan afturik erakutsi izan zan nola oñezaz lagundu giñateken gure euskara xee-xeeke ikeftzeko. (1).

### *Oaña:*

1. Oñilaren 24'eko amafetan, Euskaltzaiñak Donostiako Andre Maria'ren elizan bildurik, Broussain bere lagun zanaren oroitzapenetan meza bat opa ta entzun zuten.

---

## EMERETZI TA OGEIGAREN BATZARALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoako Aldundi-Jauregian garagafilaren 22 ta 23'an).

ALKIETAN: Azkue, Champion, Eguzkitza, Intzagarai, Lande-  
reche, Lhande, Olabide, Urquijo, Altube euskaltzaiñ autatu befia,  
ta Cincunegui urgazlea.

Artu dien erabagiak onetxek dira, Eleizalde'ren eskuz bilduak:

1. Asieran AZKUE Euskaltzainburu jaunak bere lan bat, Iztegia atontzeko bidez (composición lexicografica) irakufi eban, eta argitaratzea erabagi zan, arlo onen ardurea Urkijo jaunak arturik.

---

(1) Bigafen Atalak derakuskizu era oñezaz egin ditezkeen ikerpeen agerkizun bat. Ikus. *Vocablos agrupados según su significación*. I. *Inteligencia*, por R. M. de Azkue; *Carácter*, por Pierre Lhande, S. J.